

Bilbotarren ametsa 700. urteurrenan

• JOSEBA AGIRREAZKUENAGA •

[BIDEBARRIETA ALDIZKARIKO LEHENDAKARIA]

Bilbotarren ametseren bat azpimarratzerakoan, 700 urteren barrera, ohizko arruntasun e baridingotik at dagoen arrotasun edo handitasun puntuaren gozamenak topikoak adierazten du. Eta horrelakorik egon badago. Duela 700 urte baino gehiago Ibaizabalaren itsasadarrean *Bilbaoko Portua* zeritzon tokian jadanik populazioa bizi zen: Arrantza eta burdingintzaren inguruko zereginetan ariko ziren seguru asko. Bizkaiaiko jauna zena, Diego Lope de Haro bostgarrena, 1300 urtean, *Bilbaoko portua* zeritzon tokian hiribildua antolatu zuen eta bertan bizi zirenei eta hara zihoaztenentzat hainbat abaintaila izango zituztela agindu zien.

Maria Diaz de Haro *Bizkaiko Señorie* izango zen 1310an, aipatu dugun Diego osaba hil ondoren, Jaurerria usurpatu ziona hain zuzen ere. Urte horretan bilbotarrek berriro jo zuten Mariarengana eta honek beste agiri baten bidez onartu egin zuen bere osabaren fundazioa. Baina Bilbao indartzeko agiri berria agindu zien esanez, aurrerantzean, Orduinatik Bermeora Etxebarrin zehar zihona, Bilbotik igaro behar zuela. Bestalde itsasadarren kontrola itsasoraino Bilboren esku gelditzen zen. Hara bada, E. Garibayek XVI mendean adierazi zuenez, 1571an suteak Bilbo kixkali zuenean, Bilbo bere itsasadarra da. Eta horrela izan da, hasieran, inguruko elizateek zazpi kaleetako eremura murriztea, lortu arren.

XIV eta XV mendetan berebiziko garpenera hartu zuen Bilboko hiribilduak. Horren frogarria Santiagoko ermitaren tokian, Eliz gotiko ederra 1379an eraikitzen hasi zirela eta hurrengo mendean, zubiondoko dorretxea desegin eta bertan San Antoneko eliza eraiki, 1435an lehenengo meza eman zela. Hala ere erdi aroko mendeetan, ez zen faltatu elkarren arteko liskarrik. Inguruko leinuburuak konturatu zirenean aberastasunak lortzeko eta norberaren balioak erakusteko, hirian aukera zegoela, hiribilduetan kokatu zituzten beraien dorreak eta ondorioz elkarren arteko liskarrik hiri barnean ere gihartu. Legizamon eta Arbolantxa ganboatarren leinu buruak baziren, Zurbaran eta Basurto oñaztarrenak izango ziren.

Horra bigarren berezitasuna, lehia-

kortasuna, nor da gehiago, nork balio du gehiago, Lope Garcia de Salazarrek idatziz zuen bezala XIV mendean, ganboatarren eta oñaztarren arteko burrukak azaltzeko unean. Zalantzarik barik, gaur arte euskaldunen artean ondo erroturiko ustea eta Bilboko buruzagien baitan ere mende guztietan agirikoa dena. Jopuak leinuburuaren esanetara makurturik agiri zaizkigu, hala ere ezin dugu asko gehiago esan, albiste fidakorrik ezegonean.

Bilbotar nagusien ideiak eta ametsak beti itsasadarren txertatuak egon dira. Itsasoko portua zen, baina barruan kokaturik dago, beraz barneko, Gaztelako, hiri eta herrietatik hurbilago. Merkataritzan berezitu ziren. 1511an Bilboko merkatariek bere erakunde propioa eratzea lortu zuten, Burgoekoengandik aparte. Aurrerantzean, Bilboko Kontsulatua zeritzona Bilboko merkatarien erakunde nagusia, merkatal eta finantza zibilizazioa errotuko zuen. Brujasen antolatu ziren *Bizkaiko naziokoak* hau da Bizkaia-Gipuzkoakoak, bertan 1493an Brujaseko agintariak bere etxe eta erakunde propioa izateko *domus Cantabrica* eskeini zien. Ekintzabide horretan sorturiko arauak eta ebazpenak, 1738an argitaratu zituzten. Bilbotarrek sortu duten monumenturik handiena dugu. Mundu mailako zuzenbide maritimoiari ekarpena suposatzen zuen: Horrez gainera XIX. mende hasieran jadanik merkatal eskola bereziak sortu zituen. Merkatarien kultura hau kontsulatuaren inguruan umautuko, sormen handiko historia dugu Bilbaon.

Itsasuntzigintzaren teknologian ere nabarmendu ziren

XVI mendean jadanik, 1574 munduko hirien atlas nagusian Bilbaoren ikuspegi ederra argitaratu zen. Mende honetan Bidebarrieta kale berria zabaldu zen. Erdiaoroko hiriaren lehen zabalkundea. Aurrerantzean, etenik gabeko hedapena

egingo zuen Bilbaok. 1870an, bere eremu murrizta Begoña eta Abandoko elizateen lepotik emendatu zen eta Bilboko zabalkunde plana asmatu. Elkarrekin metropoli berria asmatu beharrean, Bilboko buruzagiek, berea baino ez zen izango hiri berria asmatu zuten.

“

*Gerra zibiletan,
karlistek setioak
ezarri zituzten eta
Bilbon mitologia
berria asmatu zen,
askatasuneko hiri
bihurtu zen*

ratu behar, sorginkeriaaren aurkakako kanpainak, emakumezkoen bazterketa, kontraerreforma katolikoa, inkizizioaren erabateko presentzia eta aldi berean, matxinoen indarra 1632ko matxinadaren agiri zen bezalaxe. Bilboko popularen buruzagiak eta indarra agiri zen, matxinadarako prest. Euskal Herriko populazio haundiko hiri nagusia izateko gaitasuna galdu zuen. Holandako Amsterdanim ez zer eraiki gurean.

XVIII mendea Bilbaon mende bizkorra eta berritzailea dugu. Berriz ere Bilboko merkataria eremu guztietan. Herri Adiskideen elkarteak hainbat kide zituen Bilbon, eta bertan 1793ko urtean bi gertakizun nagusi gertatu ziren: Herri Adiskideen elkarteko azken bilera, elkartearen garai loraitsuaren amaiera. Bestalde Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Batzar nagusietako ordezkariak bilkura Bilbon egin eta nortasun politikozko erakundea elkarren artean sortzea erabaki zuten. Tamalez, ez zuen jarraipen finkorik izan harik eta 1816ko urtez geroztik, elkarren arteko bilerak azkartu arte.

XVIII mende bukaeran Frantziako indar iraultzaileak Bilbaon sartu ziren eta bilbotarren artean, aurkariak eta aldekoak izan zituzten: Liberalismoa alde batetik eta kontraliberalismoa bestetik. XIX mendean zehar Napoleonen aldekoak goi mailako klasekoak izan ziren. On-

doko urteetan Espainiako konstituzio liberalaren aldekoak eta Espainiako kontraliberal erresumaren aldekoak edo karlistak. Eten bako gerrak, liskarrik, euskaltzaletasun politikoren lehen formulazioak agiri zirela Vicenta Mogel eta J. P. Ullibarren eskutik, kontraliberalismoaren ikuspegian oinarriturik. Bestetik, El Bilbaino aldizkariaren inguruan, foruzaletasun liberalaren teoria politikoa asmatu zen 1837an. Gerra zibiletan, karlistek behin eta berriz setioak ezarri zituzten eta Bilbon mitologia berria asmatu zen, askatasuneko hiri bihurtu zen. Bilboko hiri, garaitu ezinekoa izango zelaren ustea, finkatu zen. Harik eta 1937arte. Orduan karlistek eta bere kideek Bilbo konkistatzea lortu zuten. Errepublikano edo euskal abertzale ziren zinegotziak akabatzea, zereginetako bat zuten.

XIX eta XX mendetan, pentsamolde eta jokabide politiko nagusien kabia eta arragoa bihurtu zen Bilbaon, iraultza industrialaren arrakasta eta gidaritza lortu zuenari. Langileak, lehen internazionalaren inguruan antolaturik ziren. Ondoren, sozialismoaren aldeko alderdia sendotu zen. Errepublika zaleak euskaltzaleak, Fermin Herran adibidez, Bilbon finkatu ziren, ekimen handiak bultzatuz. Abandon eta Bilbon, molde berriko euskal abertzaletasuna asmatu zuen S. Aranak. Hala ere Espainiar monarkizaleak izango ziren mende bukaeran nagusi, La pishakoak alegia. Bakoitzak bere mitologia eta uste partikularrak adieraziko zituen. XX. mende guztian, hiru edo lau aukera horien inguruan moldatu dira Bilbotarren pentsakerak eta ametsak. Mende bukaera honetan, industria eredu erabat suntsiturik gertatu arren, bestelako eredu ekonomikoaren atzetik dabilta bilbotarren asmoak. Dena dela, hiriak, mende bukaera honetan berriz ere erabateko aldaketa formala bizi du. Utopia berriaren atzetik darrai. Berezko murriztasunean erreparatu barik, *hirugarren esparruko* hiri berri eta inmaterial handia sortzea posible duelaren sinismena, mundu mailako hiribildu nagusien sarearen kokaturik, lantzen du. Mitologia berriak bere indarra erakusten du. Ikurrik ez zaio falta, mamitzea besterik ez. Belaunaldi berrien ekimenerako erronka polita.

...hemeroteka

elkarri

*Lautadatik
gorako
abertzaleei*

[TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA]

Araba beti egon da toki berean; ordea, beti izan da kultura

eta herri askoren pasabidea, eta mugan egote horretatik datozkio bere bertuterik eta bere arazorik handienak. Ondorengo lerrook hartzaile jakina dute: Arabako Lautadatik gora bizi den abertzale oro. Artikularen xedea ere garbia da: Arabako erreallitatea zertxobait

gehixeago ezagutzea. Bide batez, zenbait itaun plazaratu nahi ditut: pasagunean hazi eta bizi garenon partaidetzarik gabe, ba al dago nazio-egitasmorik bideratzerik? Nazio eraikuntza era berean ulertu behar da Goierri eta Errioxan? Prozesu konplexu honetan, eraikun-

tza soziala behar beste garrantzia hartzen ari al da? (...) Zenbat aldiz entzun dugu Aturritik Ebrora doan marko politiko berriaren metafora txit ederra? Eguneroko praxiak, ordea, beste zerbait erakusten du: nazio egitasmo hori Goierri aldean pentsatu eta

Urola aldera begira planteatu den zerbait da. Prozesuaren kudeatzaileak Hegoaldeaz, Iparraldeaz eta Ekialdeaz ahaztu direla dirudi. Zuzentzeko garaiz gaude oraindik. Nazio-eraikuntza prozesua ezin da, inolaz ere, zerbait homogeneo eta lineal bezala ulertu. Nazio egitas-

moa ezin da goiko solairutik hasi. Nazio-eraikuntza lurralde bakoitzean sustraitu, oinarritu eta sustengatu behar den prozesu dinamikoa da. Altxatu nahi dugun eraikin berriak zutabe sendoak behar ditu. Era horretan, guztiontzat dotore eta eroso geldituko da.